



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

## Eraldaketarako lankidetzaren II. jardunaldia

Garapenerako lankidetzaren berria etengabeko  
eraldaketa dagoen munduan



Egun, munduak aldaketa eta ziurgabetasun garaiki bizi ditu. Baina abagune paregabea ere bada euskal lankidetzaren hobetzeko eta gizartearen, garapenerako GKE-en (GGKE) eta Euskadiko erakunde publikoaren zeregina indartzeko gizartearen eraldatzen jarraitu ahal izateko.

Lankidetzaren lege berria garatzen ari da eta GGKEok etorkizuneko lankidetzaren hausnarketa eta eztabaidan ekarpenak egin nahi ditugu. Aldaketa aurrean beldurrik gabe, baina 30 urtez Euskaditik sustatutako esperientzien eta elkartasun-arrakasten aitopenearekin, ekiten diogu horri.

C

### Uztailaren 6an

10.00-13.45

Bilborock, Mesedeetako kaia 1, Bilbo

Hartzaileak: Garapenerako lankidetzaren interesatuta edo inplikaturik dauden GGKE, pertsona eta erakundeak.

Aurrez aurreko edo zuzenean hemen: [www.youtube.com/ONGDEuskadi](http://www.youtube.com/ONGDEuskadi)

#### 10:00 Aurkezpena

Mila Dominguez eta Mary Tere Guzmán,  
Euskadiko GGKE-en Koordinakundea.

#### 10:20 Mahai-ingurua

Aurrera begiratu atzera begiratzeari utzi gabe:  
Euskadiko garapenerako lankidetzaren berri  
baterako gakoak.

Mertxe Larrañaga, *Ekonomia feministan aditua, eta  
EHUko irakaslea eta nazioarteko ekonomian ikerlaria.*

Javier Arellano, *Deustuko Unibertsitateko Gizarte  
eta Giza Zientzien Fakultateko dekanoa.*

Miquel Carrillo, *Lankidetzaren aholkularia, Espainiako  
Garapenerako GKE-en Koordinakundeko  
batzordekidea eta Mugarik Gabeko  
Ingeniaritzako kidea.*

Gloria Guzmán, *Hegoa Institutuko ikerlaria.*

Moderatzailea: Pilar Kaltzada, *kazetaria.*

Mahai-inguru honetan parte hartzen duten pertsonen  
[artikulu motibagarri eta iradokitzailerik hauek](#)  
idatzi dituzte eztabaida sustatzeko.

#### 11:35 Atsedena

#### 12:00 Mahai-ingurua

Alderdi politikoaren jarrerak Eusko  
Legebiltzarrari izapidetzen ari den  
etorkizuneko lankidetzaren lege  
berriaren aurrean.

Maitane Ipiñazar, *EAJ-PNV.*

Diana Urrea, *EH Bildu.*

Iñigo Martínez, *Elkarrekin Podemos.*

Teresa Laespada, *PSE-EE.*

Carmelo Barrio, *PP-Ciudadanos.*

Moderatzailea: Pilar Kaltzada,  
*kazetaria.*

#### 13:15 Ondorioak eta itxiera

Mila Dominguez eta Mary Tere  
Guzmán, *Euskadiko GGKE-en  
Koordinakundea.*

#### Izen emateak

Uztailaren 5a arte: <https://labur.eus/CooperarParaTransformar2021>

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



araba-álava  
foru aldundia diputazioen foroa

Bizkaia  
foru aldundia diputazioen foroa

Donostia San Sebastián  
foru aldundia diputazioen foroa

## Eraldaketarako lankidetzaren II. jardunaldia. Garapenerako lankidetzaren berria etengabeko eraldaketa dagoen munduan ondorioak

Bilbo, 2021eko uztailaren 6a

Desberdintasunak eta ñabardurak gorabehera, prozesu honetan parte hartzen dugun pertsonok adostasun argi batetik abiatzen gara: lankidetzaren politikak hobetzeko eta sendotzeko nahia eta borondatea, nahiz eta gure ikuspegiak osagarriak, ñabartu daitezkeenak, eta are gehiago, batzuetan kontraesankorrak izan, helburu komun hori antolatzeko moduari dagokionez.

Nazioarteko lankidetzaren sektore gisa, Euskadin erronka handiko testuinguruan gaude. COVID-19ak eragindako krisiak (aurreko krisiei gehituta) larriagotu egin ditu egiturazko baldintzak eta premiak Hegoalde Globalean —hots, guk lan egiten dugun lekuan—, eta nazioarteko elkartasuna inoiz baino premiazkoagoa da. Oraindik ez dakigu zein izango diren krisi horren emaitzak, baina oraingoz, atzerapauso handiak ikusten ari gara lankidetzaren dihardugun testuinguruaren askotako bizitza sozialaren, ekonomikoaren eta politikoaren arlo askotan.

Nazioarteko testuingurua interpretatzen hasi gabe, tokian tokiko baldintzak laburbildu ditugu. Batik bat, mahai gainean dauden eztabaidak, nazioarteko lankidetzaren osoa inplikatzeko dutenak. Esaterako, euskal lankidetzaren lege berriaren proposamena.

Ulertzen ditugu lege hori aldatzeko emandako arrazoiak, baina galdera batzuk sortzen zaizkigu, eta beharrezkoa da galdera horiek erantzutea eta adostasun politiko eta soziala izatea erreforma horretan aurrera egiteko. Benetan al da beharrezkoa lankidetzaren hobetzeko lege berri bat? Ala hobetzeko tarte handia al dago bazter uzten ditugun mekanismo, harreman mota, tresna eta abarretan? Zein dira aldaketak horien benetako motibazioak eta helburuak? Nola berma dezakegu lankidetzaren helburu nagusiak lege berri horretan babestuta egongo direla? Estatuan eta autonomia-erkidegoan, lankidetzaren eztabaida biziak sortzen ditu, eta galdera hau egiten diogu geure buruari: Nola lor dezakegu lege-esparru horiekin eguneratuta egotea, erronka handiei eta mundu mailako bidegabekeriei aurre egiteko aukera eman diezaguten?

Bestalde, autonomia-erkidegoan ez dugu eragileon parte-hartzearekin egindako indarreko legearen ebaluaziorik. Badugu dokumentu akademiko bat ondorio eta planteamendu interesgarriak dituenak, baina ziur asko behar adinako adostasunik gabea.

Horregatik, uste dugu esparru berriei buruzko hausnarketa- eta eztabaida-prozesu horiek abiarazteak parte-hartzearen prozesu bat izan behar duela eta adostasunak sortu behar dituela. GGKEok gure ahotsa entzutea eskatzen dugu: euskal lankidetzaren lehen legea (2007an onartua izan aurretik) sustatu zuen sektoreak gara, eta hein handi batean, guk garatu eta ezarri dugu, ondoz ondoko administrazio-erregulazioen baitan. Lege-esparru berri hau eraikitzeko eztabaida politikoan, lehen mailako eragiletzat aitortu gaitzela eskatzen dugu.

Horregatik guztiatik, garrantzitsua iruditzen zaigu:

- Premisa horren aurrean, oinarriko abiapuntu batzuk definitzea (doakotasuna, elkarrekotasuna, eskuzabaltasuna, aintzatespena...), gaur egungo lege-esparruan ageri direnak, eta lege-esparru horri azken hiru hamarkada pasatxo hauetako ikaskuntzak eta bilakaera erantzea.
- Lege-erreformaren esparruan, garapen-erakundeei esker metatutako jakintza handia aintzatestea. Uste dugu Euskadi adibide ona dela

nazioarteko lankidetzaren politikari dagokienez. Bil dezagun potentzial handi hori, sendotzeko eta esportatzeko, eta hobetu dezagun, prozesu horrek alferrik galdu ez dezan eta entzungor egin ez diezaion metatutako jakintzari, esperientzia horri eta konpromiso horri...

- Gehiegizko burokrazia berriz aztertzea; egokitu ditzagun tresnak, egin dezagun lana modu koordinatuan erakundearteko esparruan, bai eta lankidetzaren eragileen koordinazioan sakonduz ere. Jardunbide onak ditugu, gaur egun abian daudenak; azter ditzagun, berreskuratu ditzagun ikaskuntzak.

Eraldaketarako lankidetzaren papera etengabeko eraldaketan dagoen munduan aurreko jardunaldietan (Bilbon, 2020ko abenduaren 2an), hau ekarri genuen gogora:

- GGKEok, lankidetzaren deszentralizatuaren protagonista gisa, gure ekintzen doakotasuna eta hurbiltasuna hezurramitzen ditugu, eta aldi berean, elkarrekotasunetik lan egiten dugu, sareak eta emantzipazio-mugimenduak eratuz, demokrazia eta justizia bilatzean oinarritutako irtenbideak bilatzen dituztenak. Pertsona zaurgarrienengana iristen gara: haien eskubideak defendatzen ditugu eta haien borrokekin bat egiten dugu.
- Gizartea aldatzeko eta herritarren kontzientzia kritikoa sortzeko lan egiten dugu, herritarrek desberdintasunak, bidegabekeriak eta giza eskubideen urraketa nabarmenak eragiten dituzten kausak ulertu, ikusi eta salatu ditzaten.
- Ekarpinak egiten ditugu beste kausa batzuen eskakizunetan, mugimendu eraldatzaile batzuek (hala nola mugimendu ekologistak eta feministak) bideratutakoetan, eta aldi berean, eragina dugu nazioarteko agendan; horren adibide argia dira 2030 Agenda eta GJHen sustapena.
- Pluralak gara, askotarikoak, osagarriak, eta horregatik, irismen handia dugu. Gizarteko hainbat taldetara iristen gara, eta hala, ekintza-fokua zabaltzen dugu, zeina handia baita.

Horregatik guztiagatik, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea zoragarria dela gizarte-egitura handiagoa egotea, printzipio horiek bere egin eta euskal elkartasun-giharrarekin bat egin nahi duena. Hori ideia ona eta aukera ona da, zalantzarik gabe, baina bat-egite horrek ez ditu indargabetu edo desorientatu behar honaino ekarri gaituzten printzipioak. Miquel Carrillok honela zioen bere artikuluan: "*gizarte zibil antolaturik gabe, nazioarteko lankidetzaren eta politika publiko gisa duen ekoizpenaren haria eten egingo litzateke edo interes gaiztoek baldintzatuko lukete*". GGKEok, beraz, berme ordezkaezina gara.

Espainiako Enpresaburu Elkartearen Konfederazioa entzun ahal izan genuen Diputatuen Kongresuko lankidetzaren azpibatzordean, eta konfederazio horren hitzaldiaren ostean, berretsi genuen bezala, lankidetzari dagokionez, "*patronalaren kezka nagusia da lizitazio handiak sustatzeko, horietan sartzeko eta irabazteko beharrezkoak diren mekanismoak eta erakundeak bermatzea*". Kontu hori ere gogorarazi zigun Miquelek bere artikuluan.

Horregatik guztiagatik, izan gaitezen zuhurrak auzi honekin. Ez ditzagun geureganatu estatuan agertzen ari diren molde akademizistako diskurtso batzuk; estatuan, eragile berriak sartzeari buruzko mantrak administrazioaren eremu guztiak kutsatu dituela dirudi. "Aktore berri" horietako asko dagoeneko inplikaturik daude GGKE-ek, unibertsitateek, ikerketa-zentroek, gizarte-zentroek, ekonomia sozial eta solidarioko enpresek eta abarrek parte hartzen dugun eragile anitzeko esperientzia eta jardueretan. Aktore horietako batzuk, berez, "ez dira berriak", baina kezkarria da arreta sektore pribatura gehiegi bideratzea.

"Aktore berrien" diskurtso horren barruan, subjektu multzo zabala dago; enpresa-aktoreak daude, eta haien irabazi-asmoak lankidetzaren desinteresatuaren helburuarekin kontraesanetan dagoen balio bat dirudi. Ezin dugu enpresa-sare osoa zaku berean sartu, noski: ekonomia sozial eta solidarioko enpresa ugari daude, irabazi-asmorik gabekoak eta dagoeneko lankidetzan sartuta daudenak. Gure euskal eredu ekonomikoaren ezaugarri diren kooperatibak hor daude... Horrekin ez ditugu gure mezuak sinplifikatu nahi, baina azpimarratu nahi dugu beharrezkoa dela zuhurtasunez jokatzeko kide berriak gonbidatzeko orduan, eta aldi berean, sektoreari behar bezalako arreta emateko eskatzen dugu, sektoreko gabeziak arintzearen, gabeziak seinalatu eta horietan sakondu beharrean.

Bestalde, irabazi-asmorik gabeko beste eragile batzuk inplikatzen hasi dira, eta badirudi euskal erakundeek irtenbide bat ikusten dutela eragile horietan, lankidetzaren helburuetan aurrera egiteko (eragile horiek sektore jakin batzuetan, hala nola osasunean, ingurumenean eta hezkuntzan, espezializatutako euskal erakundeak dira); ez bairik gabe, gaitasun handiko erakundeak dira, eta nazioarteko lankidetzaren indartu dezakete. Horri dagokionez, galdera hauek egiten dizkiogu geure buruari: "Aktore berri" horiek nola eraikitzen dituzte prozesuak? Norekin eta nola eraikitzen dituzte epe luzeko lan-aliantzak? Nola indartzen dituzte duela urte batzuk abian jarritako esku-hartzeak? Nola txertatzen dira elkarrizketarako eta benetako gizarte-eraikuntzarako guneetan?

Funtsezkoa da elkarrekin eraikitzea, egiteko moduak identifikatzea eta, bereziki, elkarrizketatik eta horizontaltasunetik eraikitzea. Gure esperientziari esker, badakigu prozesuak, horizontaltasuna eta ahalduntzea funtsezkoak direla nazioarteko lankidetzaren arrakasta izan dezan, eta, beraz, ezagutu, landu eta ikasi beharreko gaiak dira horiek. Eta eragile horiek ez dute eskarmentu hori.

Javier Arellanok bere artikuluan gogorarazten zigun bezala, "*azken hogeitun urteetan, sektorea hazi egin da, baina ez da indartu. Behintzat ez modu orokorrean eta testuinguru-aldaketek eskatzen duten neurrian*". Hortaz, agian garrantzitsua izango da arreta horretan jartzea. Gure ustez, sektorea indartu egin da azken 20 edo 30 urte hauetan, eta asko gainera, baina egia da indartze horren zati bat lan administratiboan zentratutako profesionalizazioan gauzatu dela, eta batzuetan arreta desbideratu dugula gure kideek Hegoaldean dituzten emantzipazio-prozesuetan laguntzeko.

Baina ez beti. Izan ere, administrazio-karga gorabehera, edo karga horren kontura, eta sektoreak izan duen lan-prekarietatea gorabehera, Hegoaldeko ahotza dugu, Gloria Guzmánen eskutik, eta ahotz horrek gogorarazten digu gure lankidetzaren ereduak badituela bere ahalmek: "*Egindako elkarrizketetan oinarrituta, euskal lankidetzaren ezaugarri hauek ditu: euskal lankidetzaren, finantza-harremanaz harago, aliantzak aurkitu daitezke agendaren komunitatean lan egiteko; euskal lankidetzaren aukera ematen du politikoki hitz egiteko; ulertzen du gizarte-aldaketaren premiak*

*asetzeko beharrezkoa dela subjektu politikoak indartzea; lankidetzaz hurbila eta malgua da; epe ertain eta luzeko prozesuetan laguntzen du; krisi-garaietan ere laguntzen jarraitzen du; giza eskubideen ikuspegitik egiten du lan; gizarte-mugimenduekin egiten du lan eta lurraldeetako arazoak ondo entzuten daki.*

Eta aurrerago, honela dio: *“oro har, nolabaiteko adostasuna dago euskal lankidetzak ikuspegi politiko bat mantentzea lortu duela, eta hori dela-eta, balio garrantzitsua du batik bat egiturazko aldaketak sustatzera bideratuta dauden Hegoaldeko erakundeentzat”.*

Nabarmendu egin nahi dugu zer-nolako garrantzia duten GGKE-ek Gloriak azpimarratzen duen ikuspegi politikoko euskal lankidetzaz horretan. Euskal GGKEok, euskal lankidetzaz deszentralizatuak egindako ibilbidearen urte hauetan guztietan, eztabaida, hausnarketa eta prozesu sakonak ireki ditugu gure ekimenaren alde, erakundeak hausnarketa eta paradigma berri horietako batzuetara bultzatzeraino, eta gaur egun, erakundeek bere egin dituzte hausnarketa eta paradigma berri horiek, naturaltasunez eta konbentzimenduz. Gaur egun, Garapenerako Lankidetzaren Euskadi Agentziak eta beste erakunde batzuek emakumeen ahalduzaren alde egiten badute, ez da hasieratik gai hori beren idearioan zutelako, baizik eta, hein handi batean, Hegoaldeko erakundeek egindako lanagatik eta gu norabide horretan bultzatzen aritu garelako. Eta hori gertatzen da beste gai garrantzitsu batzuekin. Gai horien artean daude, beste askoren artean, eskubide indibidual eta kolektiboak, gizarte zibilaren ahalduzaz, klima-aldaketa eta ingurumenaren krisia, eta prozesuen, subjektuen eta eskubideen ikuspegia. Oso gauza ona iruditzen zaigu erakundeek ardatz horiek bere egitea, baina mahai gainean nork jarri dituen eta nork bultzatu dituen aitortzea nahi dugu.

Badakigu zer mundutan bizitzea egokitu zaigun, eta zeinen handiak diren aurre egin behar diegun erronkak. Mertxe Larrañaga oso argi mintzatu zen bere artikuluan horri buruz. Ikus dezagun, halaber, bizi garen garaiek ematen diguten aukera. Mertxe Larrañagak honako hau aipatzen zuen: *“krisiaren aurreko “normaltasunera” itzuli nahi dugu, baina ahaztu egiten zaigu normaltasun hori krisian zegoela eta bizi ginen garaian jadanik desberdintasuna zela nagusi. Bestalde, krisiak pizgarri bat, akuilu bat eta aukera bat izan daitezke ekonomia-eredua aldatzeko eta mundu justu eta bidezkoago baterantz aurrera egiteko, baina zoritxarrez, krisi-garaietan orobat gerta daitezke gehiengoei kalte egiten dieten atzerapausoak”.*

Horregatik guztiagatik, GGKEok ez dugu amore eman behar; aitzitik, duela 3 hamarkada baino gehiago bizi garen mundua hobetzeko lan egitera eraman gintuen motibazio berarekin jarraitu behar dugu. Motibazio horrek eraman gintuen, hain zuzen, borroka egitera pobrezia errotik kentzeko, desberdintasunak desagerrarazteko, pobrezia eta desberdintasuna sortu eta krisi ekologikoa areagotzen duten kausak salatzen, jatorrizko herrien emantzipazio-prozesuei laguntzeko, eta ikuspegi feministatik Hegoalde Globaleko prozesu eraldatzaileen elkarrekotasunetik lagundu eta ikasteko. Eta gure kausetan, beste kolektibo batzuen konplizitate handiagoa bilatu behar dugu: kasu batzuetan, lankidetzan dihardugun kolektiboena, eta agian beste kasu batzuetan, kolektibo berriena.

Beraz, paradigma berrien, lankidetzaz arautzeko lege-proposamen berrien eta parerik gabeko globalizazio baten testuinguruan, gizarte zibil antolatua – nazioarteko lankidetzazko GGKEak– sistema horretan lehen mailako eragileztat aitortzea nahi dugu, bai eta elkarrizketarako eta baterako eraikuntzarako gaitasuna duen solaskide politikotzat ere.



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

GGKEok urteak daramatzagu testuinguruaren erronkei erantzuten, eta adituak gara berrikuntzak egiten, bai eta baldintza (maiz) txarretan prozesuak sortzen eta birsortzen ere. Esperientziak, gaitasunak, aliantzak, kontaktuak eta jakintza praktikoa ditugu. Elkarrizketan aritu nahi dugu; ez gara aldaketaren beldur; aitzitik, aldaketa eraiki eta betidanik motibatu gaituzten justizia-horizonteetara bideratu nahi dugu. Iparralde Globaleko beste eragile bakar batek ere ez du hainbeste jakintza eta esperientzia metatua garapenerako lankidetzan. Eta uste dugu, gainera, gure lankidetzak indartuta atera behar duela legea aldatu edo egokitzeko prozesuetatik, non buru-belarri arituko baikara politika hobetzeko eta elkartasun-giharra handitzeko, baina urte luzez modu desinteresatuan borrokan aritu den kolektiboaren lanean oztoporik jarri gabe.